



Oinarri teknologikoko enpresask edo Enpresa berritzaileak sortzeko programa

BARNETEKIN 2023

AMAIERA TXOSTENA OSATZEKO GIDA

APLIKATIBOAN OSATU:

- Proiektuaren **amaierako txostena** eta **eranskinak**.
- **Zereginak**: amaiera data, orduak, egoera eguneratu (amaituta dauden zeregin guztiek egoeran "*amaitua*" izan beharko dute).
- **Egitasmoaren Kostuak**: Gauzatutako kostuak eta Finantzaketa plana.
- Egitasmoko **kostuen frogagiriak** eta beraien **ordainagiriak** eskaneatu eta erantsi.
- Proiektuan zehar **sortutako dokumentazioa** atxiki behar da.

NOLA ERANTSI GAUZATUTAKO KOSTUEN FROGAGIRIAK

Kostuen **frogagiriak** eta beraien **ordainagiriak** eskaneatu eta erantsiko dira.

Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin pdf dokumentu bat erantsiko da. Bertan faktura/frogagiri bakoitza bere ordainagiriarekin batera agertuko da, **8. eranskinen jarritako hurrenkera** jarraituz.

15.000,00 € EUROTİK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Entitate onuradunak dirulaguntzetan sartzen diren gastu batzuk egin baditu, **15.000,00 € edo hortik gorakoak** (BEZa kanpo), ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, **eskatutako hiru eskaintzen artean egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa** aurkeztu behar du.

Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez bada.

PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Jasotako laguntzaren eta sustapenaren publizitate egokia (**irudi instituzionala, leloak.... Sartuz dokumentuetan, euskarri elektronikoetan, komunikazio hedabideetan, etab.**) biltzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi behar da, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak proiektuari emandakoa.

ZERGA ETA GIZARTE EGURANTZAKO BETEBEHARRAK BETETZEA

Entitatearen **zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak egiaztatzea GFAko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren esku** geratu zen, horretarako **baimena eman bazon** erakundeak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izanez gero. **Enpresak Gizarte Segurantzaren ordezkoko sistema izango balu**, berarekiko betebeharrak betetzen dituela azaltzen duen **egiaztagiria** erantsi.

PROIEKTUAREN DOKUMENTAZIOA

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak erantsiko da ere.